

ETA EKINTZARA PASATZEN BAZARA?

Boluntariora eta parte hartzea
garapenerako lankidetzako GKE-etan



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Euskadiko GGKE-en Koordinakundea euskal GGKE-en kolektiboa da. Munduko justiziaren alde lan egiten dugu honako hauen bidez: nazioarteko lankidetzak, gizartearen eraldatzeko hezkuntza, ekintza humanitaria, bakearen sustapena, giza eskubideen defentsa, giza garapen jasagarria eta genero ekitatea lankidetzak feministarantz, besteak beste.

Sare hau 80 GGKEk baino gehiagok osatzen dute; sektorea ordezkatu eta proposamenak, interesak eta GGKE-en eta gizartearen balioak defendatzen ditugu administrazio publikoan, beste erakundeetan eta herritarren aurrean. Honako hauek dira gure erakundearen **helbururik garrantzitsuenak**:



Erakunde publikoetan, pribatuetan eta bazkide diren GGKE-etan kalitatezko garapen-politika sendoa eta egonkorra **sustatzea eta bermatzea**.

Bazkide diren erakundearen arteko **lankidetzak, elkarrizketak eta ekintzaren bidez** haien jarduna koordinatzea, esku-hartze egokia eta eraginkorra lortzeko.



GGKE-ek beren jardunean laguntzea, ekintzak eta gaitasun politiko eta teknikoak indartzea, eta aliantzak erraztea haien baliabideak kolektiboaren zerbitzura jarritz, eta alderantziz.



Kontzientzia kritikoa sortzen laguntzea, justizia soziala, giza eskubideak eta berdintasuna nagusitu daitezkeen.



Izena eman gure **buletinean** eta Euskadiko GGKE-en lan- eta boluntariotza-eskaintzak jasoko dituzu zure posta elektronikoan, bai eta nazioarteko lankidetzari buruzko informazio interesgarria ere, hala nola jardunaldiak, hitzaldiak, prestakuntzak, kongresuak, mintegiak, kanpainak edo mobilizazioak: www.ongdeuskadi.org



Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignazio Loiolakoa 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Gasteiz**
☎ 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Erronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbo**
☎ 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
☎ 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

BESTE MUNDU BAT POSIBLE DA



Gure inguruko eta beste herrialde batzuetako pertsona askori eragiten dien desberdinkeriaz, pobreziaz eta bidegabekeriak jositako mundu batean bizi gara. Hau da, egunero milioika pertsonaren giza eskubideak urratzen dira.

Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKE) irabazi asmorik gabeko erakundeak gara, herritik sortu gara, eta giza eskubideak defendatzeko eta gizarte aldateta eragiteko lan egiten dugu. Euskadiko gizartearen laguntzari eta konpromiso sozialari esker, nazioarteko lankidetzaren proiektuen bidez, **kalteberetasun handiko tokietan** lan egiten dugu, hala nola Latinoamerikan, Afrikan eta Asian. Osasuna edo nekazaritza jasangarria bultzatzeko ekimenak sustatzen ditugu, behar diren azpiegiturak eraikitzeko, tokiko instituzioak indartzeko edo ekitatea bermatzeko, etab. Horrez gain, larrialdiko egoeretan ere esku-hartzen dugu, hala nola gerretan, gatazka armatuetan edo natura-hondamendietan.

Gure lanaren zati garrantzitsu bat **Euskadin** egiten dugu. Bestalde, instituzioei eta alderdi politikoei eskatu eta presioa egiten diegu **pobrezia eta desberdinkeria errotik kentzeko neurri eraginkorrak eta egiazkoak** hartzeko konpromisoa har dezaten, esaterako, nazioarteko lankidetzaren politiken bidez. Horretarako, helburuak partekatzen dituzten plataformak, sare eta mugimenduekin bat egiten dugu. Munduko hainbat eta hainbat kolektiboren antzera hau aldarrikatzen dugu: beste mundu bat posible da! (baita beharrezkoa ere).

Bestalde, GGKEok gizarteari ezagutarazten diogu beste herri batzuen errealitatea, eta **bidegabekeriaren arrazoiak erakusten** dizkiogu, ez soilik horien ondorioak. Gainera, pertsona guztientzako mundu bidezkoago, jasangarriago eta bizigarriagoa lortzeko beharrezko aldaketak azaltzen ditugu, eta bizi-beharrak merkatuaren gainetik jarriko dituen sistema baten alde egiteko proposamenak eta aukerak erakusten ditugu. Horrela, gaur egungo garapen ereduaren inguruko pentsamendu kritikoa elikatzen laguntzen dugu; izan ere, eredu horrek gizartearen parte handi baten pobrezia eta elite txiki baten aberastasuna sortzen du.

Azken finean, giza eskubideen urraketan dugun arduraz kontzientzia pizten laguntzen dugu, dena konektatuta dagoen mundu batean: kontsumoa, ingurumena, baliabideen ustiapena, klima larrialdia, migrazioa... Izan ere, gizartea eraldatzea lortzeko, beharrezkoa da herritarren konpromisoa.

GARAPENAREN "G" LETRAREKIN

Gure erakundeekin batera doan "G" letrak *garapena* esan nahi du, eta gure ekimen-esparru zehatza islatzen du. Bidezkoa eta parekidea den garapen eta gizarte eredu sortzeko lan egiten dugu, toki guztietako pertsonentzat, bizitza duina eta eskubidez bete ahalbidetuko duena, bai eta egungo belaunaldien beharrak aseko dituen ere. Hori guztia etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe, eta ingurumena eta planetaren mugak errespetatuz.

Irtenbidearen (eta ez arazoaren) parte aktibo eta protagonista izan nahi baduzu, Euskadiko GGKE-en boluntariorantz batu zaitezke, eta, horrela, gustuko ez dituzun errealitateak aldatzen lagunduko duzu.



ZER DA BOLUNTARIOTZA?

Jarduera solidarioa eta soziala da, izaera altruista du eta ez du ordainsari ekonomikorik. Erakunde baten bidez egiten da, oro har, taldeka, eta beti beste pertsonen, talde baten edo gizartearen eta beren beharren alde. Besteak beste, justizia, berdintasuna, ulermena, inklusioa eta aniztasunaren eta giza eskubideen errespetuaren balioak eta printzipioak sustatzen dituen parte-hartzea da.

Boluntariotza elkartasun konprometitu eta antolatua da; gizarte garapenaren aldeko herri-ekimenaren adierazpen kualifikatua. Azken finean, errealitatea aldatzeko esku-bidea defendatzeko tresna da, eta boluntarioak **gizarte eraldaketaren protagonistak eta eragileak** dira.

Boluntariotza oso esperientzia aberasgarria izan daiteke, baina aldeaz aurretik horren inguruan hausnartu behar da, informazioa lortu eta prestatu. Boluntario baten lana ez da bere ohiko egitekoa, erabaki arduratsua da, sentsibilizazio eta kontzientziazio prozesu baten ondorioa. Laguntzeko modu asko daude, eta, horregatik, garrantzitsua da zehaztea zer egin nahi duzun boluntario gisa, zeintzuk diren zure gaitasunak, zer ordutegi duzun...

Dedikazioa eta esfortzua behar da, baina ez dago mugarik. Nahikoa da gizarteko edozein eremutan lan egitea: kultura, bazterkeriaren kontrako borroka, ingurumena, giza eskubideak, nazioarteko lankidetzak, kirola, aniztasun funtzionala, berdintasuna, immigrazioa, adineko jendea...



Boluntariotza modu egoki batean egiten ez bada, gizarte eraldaketari laguntzen ez dioten praktikak eragiten ditu. Boluntariotza ez da jarduera espontaneo eta inprobisatua, ez dira mendekotasuna sortzen duten eta egiteko moduak edo ikuspegi politikoak ezartzen dituzten noizbehinkako ekintza paternalistak eta asistentzialismoak. Boluntariotza ez da pobretutako herrialdeetara bidaiatzea; helburua hortik haratago doa. Ez da moda bat eta ez du ordaindutako lana ordezkatzen.



Zure denbora eta esperientzia lan-solidario baterako eskaintzen baduzu, askatasunez eta dohainik egiten baduzu, beste pertsona batzuekin elkartzen bazara gizartea aldatzeko eta mundu hobea eraikitzeko, orduan boluntarioa zara!

LANKIDETZAKO GARAPENERAKO

GKE-ETAN BOLUNTARIOTZA



Honaino iritsi bazara, aurrerapauso bat eman duzu eta GGKE bateko boluntariotzan parte hartzea erabaki duzu. Era horretan, gizarte eraldatzen lagunduko duzu: **zorionak!**

Garapenerako lankidetzaren borondatezko lanaren helburua da **munduan ikusi nahi dugun aldaketaren parte izatea**. Mugak zabalitzean eta munduko bidegabekeriazko eta desberdinkeriazko harremanak ulertzean datza, baita horien arrazoiak ere, horiek aldatzen laguntzeko, banaka eta taldean. *Laguntzaren* kontzeptu asistentzialistatik haratago doa, ekitera eta epe luzeko konpromisora garamatza harreman horizontalen bidez, maila berean.

GGKE batean askotariko lan motak izan ditzakezu. Horien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu: lankidetzaren proiektuetan, kanpainen, kale-ekintzetan edo gizarte eraldaketarako sentsibilizazio- edo hezkuntza-jardueretan laguntzea; komunikazio-lanetan parte hartzea (argitalpenak, komunikabideekin aritzea, webguneko arreta, bloga edo sare sozialak); sareetan edo lantaldeetan parte hartzea; edo administrazio lanetan laguntzea, besteak beste. Gainera, ideiak eta proiektuak proposatzeko aukera izango duzu, eta zure bizi- eta lan-esperientzia ere oso erabilgarria izango da erakundearentzat.

Zure denbora, motibazioa eta lana oso baliagarriak dira GGKE-entzat. Ez ahaztu; pertsona guztiok parte hartu beharko genukeen **gizarte eraldaketaren parte zara**.

Azken finean, errealitatearen gainean jardutea eta hura pixka bat bada ere aldatzea da errealitatea eraldatu daitekeela erakusteko modu bakarra.

Eduardo Galeano

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko erakunde bazkideetan boluntariotza

Boluntariotza Euskadin

GGKE batekin lan egiteko ez duzu zertan atzerrira bidaiatu; zure inguruan ere egin dezakezu. **Aldaketak eskala handian egiteko beharrezkoa da gertuko eremuan jardutea**; gizarte modu zuzenean aldatzeko gaitasuna duzu eremu horretan. Tokiko ekintza nazioarteko lankidetzaren beharrezko parte da, alegia, gizarte eraldaketarako funtsezko pieza. GGKE-etan zu bezalako pertsonak aurkituko dituzu, mundua aldatzeko eta alternatibak proposatzeko borondatea dutenak... Elkarrekin urrunago iritsiko gara.

Gure webguneko (www.ongdeuskadi.org) **GGKE** atalean, gure sareko erakundeen lanaren berri izan dezakezu. Zehatz esateko, atal horretako bilatzailean dituzu **zure herrian edo hirian boluntariotza** eskaini diezaiokezun GGKEak. Eman begiratu bat eta zehaztasun gehiago behar izanez gero, jar zaitez haiekin harremanetan. Eta GGKE horietakoren batera gerturatzea zer? Gainera, **Kolaboratu nahi?** atalean GGKE-en boluntarioen behar zehatzak ikus ditzakezu.

Nazioarteko boluntariotza

Nazioarteko boluntariotzaren esperientzia ere izan dezakezu GGKE baten bidez, munduko beste toki batzuetan gertatzen denarekin harreman zuzenagoa izateko. Euskadiko GGKE-ek lan egiten duten lurraldeetara bidaiatzean datza, normalean herrialde pobretuetan egiten dituzten lankideza-proiektuen esparruan, leku horietan esku hartzen baitute. **Helburu nagusia ez da laguntzea, baizik eta behatzea, partekatzea eta esperientziak trukatzeko**, beste inguru batzuetan bizitzea eta zuzenean ikastea erakundeak lan egiten duen testuinguruan, geure buruak sensibilizatzeko eta beste errealitate batzuk ezagutzeko.

Nazioarteko boluntariotza bat egiteak ez zaitu kooperante bihurtzen. Kooperantea profesionalki aritzen da nazioarteko lankidetzan, prestakuntza kualifikatua eta espezializatua duelako gai horretan, esperientzia eta ibilbidea izateaz gain. Horri guztiari esker, lankidetzako eta ekintza humanitarioko proiektuak eraginkortasunez kudea ditzake, erakundearekin duen lan-harremanaren bidez.

Nazioarteko esperientzia horiek bizitzeko, GGKE-ek askotan aurrez nolabaiteko prestakuntza izatea eskatzen dute, eta gehienetan erakundeak berak ematen duen formakuntza izaten da. Izan ere, motibazioa, gogoia eta ilusioaz gain, bidaia hori hasteko ezinbestekoa da herrialdeko testuinguruari eta joango zaren tokiari buruzko ezagutza eta informazioa lehen eskutik lortzea, besteak beste. Horri guztiari esker, esperientzia aberasgarriagoa izango da zuretzat eta zure komunitateko pertsonentzat; elkarbizitza hori eraldatzaileagoa izango da eta eragin positibo handiagoa izango du.

Era berean, gomendagarria da aurrez erakundearekin loturak izatea Euskadin borondatezko lanak eginez. Horren xedea da zuk GGKEa ezagutzea, haren ezaugarrien berri izatea, dagoen tokietan egiten duen lanaren berri izatea eta nori zuzentzen den jakitea. Halaber, lan hori baliagarria da zu hobeto ezagutu zaitzaten eta aurrez elkarrekin bidea egin dezazuen.

Nazioarteko esperientzia izan nahi duzula erabakitzen duzunean, lehenengo aldia bada nazioarteko boluntario lana egin behar duzula, oso egokia da taldeko bidaia bat egitea hasteko eta egonaldia luzeegia ez izatea. Itzultzean, esperientzia gustatu zaizula uste izanez gero, beti izango duzu errepikatzeko eta sakontzen jarraitzeko aukera. Hobe da poliki hastea, urrun iritsi ahal izateko.

Boluntarioei harrera egiteko, erakundeek gastuak eta dedikazioa behar dituzte. Hori dela eta, ohikoa da zure hegaldia, egonaldia eta mantenua zeuk ordaindu behar izatea, edo erakundeari ekarpen ekonomiko bat egin behar izatea. Bidaia hasi aurretik GGKEarekin argitu behar duzu hori, baita zure zalan-tza guztiak ere. Oro har, ez da dirulaguntzarik izaten GGKE-ekin nazioartean borondatezko lana egiteko bidaia-gastuetarako eta egonaldi-rako, erakunde publikoek sustatutako programa batzuetan izan ezik.

GGKE-etako nazioarteko boluntariotza-proposamenak modu batera baino gehiagotara izendatzen dira helburuen edo egingo den lanaren arabera, baina, oro har, Euskadiko GGKE-ek parte hartzen duten lankidetzaproiektuen eta testuinguruaren **errealitatea zuzenean ezagutzeko mota nagusiak** honako hauek dira:

ELKARTASUN BRIGADAK

Pobretutako herrialdeetara egiten diren taldeko bidaiak dira, tokiko eta Euskadiko erakunde eta mugimendu sozialen eskutik. Oro har udan edo oporretan egiten dira eta egonaldi laburrak izaten dira. Herrien errealitateak eta borroak gertutik ezagutzea da xedea, esperientziak trukatzeko, komunitateen arteko elkartasuna areagotzea eta gizarteko erakunde eta mugimendu horiekin elkarbizitza. Itzultzean ohikoa da lanean jarraitzea, identifikatutako bidegabekeriak salatzeke, horiei buruz sensibilizatzeko eta han bizitako errealitateen berri emateko hemen. Zenbaitetan lan zehatzak izaten dira, beste batzuetan bisitak izaten dira eta bizipenak eta informazioa trukatzeko da.

AUZOLANDEGIAK EDO ELKARTASUN-LAN-EREMUAK

Gizarte arloko jarduera edo lana izaten da, gehienetan jatorri desberdineko talde batek egiten du borondatez denboraldi labur batean (bi edo lau aste artean, gehienetan udan edo oporretan), eta sentsibilizazioa sustatzen duten jarduera osagarriekin konbinatzen da. Bidaia horietan, inplikazio handia izaten da tokiko erakundearekin eta proiektuarekin, errealitatea ere ezagutu beharra dago eta zuzeneko kolaborazioak planteatzen dira egiten den lanean. Gainera, proiektuaren bidez, elkarbizitza, tolerantzia, elkartasuna, parte hartzea, kultura arteko ikaskuntza eta abar sustatzen dira.

BIDAIA EDO TURISMO SOLIDARIOA

Zenbait GGKEk antolatzen dituzten taldeko esperientziak dira, batez ere udan edo oporretan, GGKEak tokiko erakundeekin batera lankidetzan proiektuak egiten ari diren pobretutako herrialdeak ikustera joateko. Garapen arloko ekimenak babesteko eta sustatzeko izaten dira, bai eta haien herrietako egoeraz sentsibilizatzeko ere. Gainera, elkartasunezko turismoa sustatu nahi izaten dute, hots, turismo alternatiboa, arduratsua eta bidaia egiten dutenentzako onuragarria, baina baita herrialde, komunitate eta pertsona hartzaileentzako ere. Horrela, ohiko turismoarena ez bezalako ikuspegitik ezagutuko duzu mundua.

BESTE PROPOSAMEN EDO EKIMEN BATZUK

Horrez gain, GGKE-ek parte hartzen duten beste proposamen edo ekimen solidario batzuk ere badaude. Horien artean, pobretutako herrialdeetako nazioarteko lankidetzan ikastaroak nabarmentzen ditugu, prestakuntza eta sentsibilizazioa ardatz dutenak. Horien helburua da herrialde horietan egiten diren ekimenen eragina ezagutzea, esku hartzen duten tokietako errealitatea ezagutzea eta proiektu bat eta bere faseak ulertzea. Euskadiko erakunde publiko batzuen bekak eta programak ere azpimarratu nahi ditugu. Gehienetan gazteei zuzendutakoak izaten dira eta GGKE batekin pobretutako herrialde batean lan egiteko edo lankidetzan aritzeko aukera izaten da, baita sentsibilizazioa bultzatu eta herrien eta kulturaren arteko elkartasuna sustatzeko ere.

Gure webguneko (www.ongdeuskadi.org) **GGKE** atalean, gure sareko erakundeen lanaren berri izan dezakezu. Zehatz esateko, atal horretako bilatzailean **nazioarteko boluntarioritza** egiteko aukera eskaintzen duten GGKEak aurkituko dituzu. Eman begiratu bat eta zehaztasun gehiago behar izanez gero, jar zaitez haiekin harremanetan. Eta urratsa ematen baduzu?

Beste erakunde batzuek sustatutako nazioarteko boluntarioritza esperientziak

Euskadiko GGKE-en Koordinakundetik at, antzeko helburuekiko esperientziak eta ekimenak sustatzen dituzten beste talde, gizarte mugimendu eta antolakunde batzuk ere badaude:

- Komite internazionalistak: www.herriak.org
- Askapena: www.askapena.eus
- Plataforma Vasca de Solidaridad con Chiapas/Txiapasekin: <https://txiapas.wordpress.com>

- DOA (Denok Osasunaren Alde/Todos por la salud): www.doaong.net
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa: www.gazteaukera.euskadi.eus

Eusko Jaurlaritzaren programa honetan Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko bazkide diren zenbait GGKEk hartzen dute parte.

ELKARTASUN-PROPOSAMENAK



UNIBERTSITATEK ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUK

Unibertsitatean ikasten ari bazara, gogoan izan zure prestakuntzarekin bat datozen ekimen **solidarioak** aurki ditzakezula eta mundua beste era batera ikusten, aztertzen eta bertan egoten lagunduko dizutela.

Gainera, nazioarteko lankidetzak gustatzen bazaitu eta profesionalki horretan ibili nahi baduzu, bi unibertsitate hauek **espezializatzen graduondokoak eta masterrak** eskaintzen dituzte.

Era berean, gogoan izan GGKE batean egin ditzakezula zure graduak, graduondoko edo masterrako **prestakuntza-praktikak**, nahiz Euskadin nahiz GGKE-ek lan egiten duten herrialdeetan.

**BILATU, GALDEU...
ETA BAT EGIN INTERESATZEN
ZAIKIZUN EKIMENEKIN!**

Gure webguneko (www.ongdeuskadi.org) **GGKE** atalean, gure sareko erakundeen lanaren berri izan dezakezu. Zehatz esateko, atal horretako bilatzailean aurkituko dituzu **ikasleei trebakuntza-praktikak** eskaintzen dizkieten GGKEak. Eman begiratu bat eta zehaztasun gehiago behar izanez gero, jar zaitez haiekin harremanetan.



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Garapenerako Lankidetzak Bulegoa,
UPV/EHU

Liburutegia Eraikina, 6. solairua
Sarriena auzoa z.g

48940 Leioa-Erandio (Bizkaia)

☎ 946 012 221 / ☎ 946 012 067

oficop@ehu.eus / www.ehu.eus

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Deusto Campus Elkartasuna
Unibertsitateen etorbidea 24
48007 Bilbo

☎ 944 139 000 (luzapena 2870)

solidaridad@deusto.es

Mundaiz bidea 50
20012 Donostia

☎ 943 326 600 (luzapena 5293)

deustocampus.ss@deusto.es

www.deusto.es

Baldin eta Euskadiko hirugarren sektore sozialaren inguruko ikuspegi zabalagoa izan nahi baduzu, honako sare hauetara zuzen zaitezke:

Batekin  www.batekin.org

Arabako boluntarioria eta gizarte ekintzarako agentzia.

BizkaiaGara  www.bizkaigara.eus

Bizkaiko boluntarioria eta gizarte ekintzarako agentzia.

Boluntarioria  www.boluntarioria.eus

Euskadiko boluntarioria programei ikusgarritasuna emateko tresna.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)

 www.egk.eus

Gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten elkarten topagunea.

Gizalde  www.gizalde.eus

Gipuzkoako boluntarioria.

Laguntzaileak:

